

...eta **Kitto!**


714 zkia. 2010-III-18

ASTEKARIA

TOKIKOM



INDUSTRIAREN irudirik ederrenak




MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
ZEUK AUKERATU
www.multiopticas.es
Bidebarrleta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

mō
betaurreko
progresiboa
147€
kristalak berriz

Erretiroa eta gaitasunak hobetzeko irratia
Erretiroa eta gaitasunak hobetzeko irratia

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**


**AUTO
ESCUELA**

CURSOS INTENSIVOS

**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR




...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelarik
euskara,
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIAK:

Arcenillas, Angoitia, Palacios

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GAITXIZEN / GATXIZEN.- Gaitxizena, izengoitia, ezizena. "Eibarren beste gaitxizen, ez da erreza beste herri baten".

GAIZKI-GURAK.- Inorenganako borondate txarra. "Alkarri dittugun gaizki-gurak, sortzen dittue munduko okerrik gehixenak".

GAIZKI HARTU.- Esan edo egiten digutenari txarto eritzi. "Hi, ez eidak gaizki hartu, baiña or ez dok adore haundirik erakutsi".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldia

"Saileko hiltzaileei begira, ekintza arbuigarri eta ulertezinenak buruko gaitz larrienetatik libre dauden banakoek gauzatzen dituzte. Gure artean bizi dira, zenbaterainoko oinazea eragiteko gai diren ez dakigula. Jarrera horiek ez ditu genetikak soilik azaltzen; baldintza batzuk behar dira."

(Rafael Benito, mediku psikiatra)

"Debako zentroko hogeita hamarrekotik lauk bakarrik jarraitzen dute arazo larriak sortzen. Aurretik 300etik gora delitu, mehatxu eta irain salaketa zituzten adin txikikoak, lau horiek kenduta, sare normalera pasatu dira, gaztelera klaseekin eta igeltseritza tailerrarekin osatutako egitarauari esker"


(Agurtzane García, zuzendari pedagogikoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

1949-AN JAIOTAKOAK

Urte horretan jaiotako bazkarian aldaketa egon da eta, beraz, egunerako prestatutako egitaraua honakoa izango da azkenean: Untzagan argazkia ateratzeko batuko dira eguerdian eta 14.00etan Arratera, Krabelin jatetxera igotzeko autobusa hartuko dute. Bertan bazkaldu eta, ondoren, dantzaldia ospatuko dute. Parte hartu nahi duenak 65 euro ordaindu beharko ditu, Kutxako honako kontuan: 2101 0035 16 0126802032.

ERROBOTA


Tekniker-IK4-k pertsoneri laguntzeko errobeta garatzeko proiektuari ekingo dio, Kutxaren laguntzarekin. Urte bitan "kTbot" izeneko proiektuak prototipoa aurkeztuko duela aurreratu dute. Kutxak 540.000 euroko laguntza emango du errobot mugikor, autonomo eta funtzionaltasun aurreratu hori sortzen laguntzeko.

Aixolako zentroaren kokapena aztergai

EIBAR, ERMUA ETA ELGETAKO UDALEK SE-NIDERIK GABEKO ETORKIN ADINGABEAK HARTZEN DITUEN Aixolako zentroaren kokapenaren gainean azterketa egiteko eskaera egin diote Gipuzkoako Foru Aldundiari. Aurreko aste-ko barixakuan istiluak izan ziren aipatutako zen-truean eta liskarrean parte hartu zuten sei adinga-be atxilotu zituen Ertzaintzak. Aixolako zentrua Elgetako lur-eremuan badago ere, inguru horretan Eibar eta Ermuko bizilagun asko ibiltzen da aisialdian.

Horregatik, aipatutako Udalek inguruan bizi edo ibiltzen direnen segurtasuna bermatzeko es-

kaera aurkeztu diote adingabekoen zentruaren arduraduna den Foru Aldundiari, *"harrera egoitza ireki zenez geroztik istilu esanguratsuak"* egon di-rela argudiatuta.



Ikastolaren sorrera gogoan

MARTXOAREN 11-N, AURREKO ASTEKO EGUENEAN, BETE ZITUEN 50 URTE JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAK eta, hori gogoratuzeko, ikastolaren lehenengo urteei buruzko



Armeria Eskolan jai handia izan zen zapatuan. / MAIALEN BELAUSTEGI

mahaingurua antolatu zuten: Mari Tere Munduate Eibarko ikastolako lehenengo andereñoak, Odile Kruzeta hasierako sasoi hartan ikasle izandakoak eta guraso gisara jardun zuen Martin Ugarteburuk hartu zuten parte Untzagako jubilatutako etxean egindako mahainguruan. Gainera, mahaingurura gerturatu zirenek domekara arte jubilatutako etxean martxan egon zen erakusketan batutako argazkiak eta bestelakoak ikusteko aukera aprobetxatu zuten. Eta mende erdiko ibilbidea ospatzeko martxoan antolatutakoekin amaitzeko, egun osoko jaialdia egin zuten zapatuan. Hasiera batean Untzagan egitekoa zen, baina eguraldiaren beldur, azkenean Armeria Eskolako frontoian ipini zituzten umeendako puzgarriak, zezen-mekanikoa, eskulan tailerrak eta bestelakoak. Umeek ederto pasatzen zuten bitartean, ikastolako gurasoek tabernan zerbait hartu eta urteurrenaren inguruan salgai ipini zituzten kamiseta eta bestelakoak erosteko aukera izan zuten helduek.

PREST



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

etorri aurretik izena emari

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola-Politeknikoa

ORDIZIA

APIRILAK 17 larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

IRUN

MARTXOAK 25 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORRIATZA

APIRILAK 22 osteguna - 18:00

ARETO Nagusia



Hegaztiak udaletxetik ahalik eta gehien urruntzen ahaleginduko dira. / SILBIA HERNANDEZ

Udaletxearen fatxada babesteko neurriak

AURTENGO AURREKONTUAK UDALETXEAREN FATXADAREN BABESERAKO NEURRIAK HARTZEKO 12.000 EUROKO PARTIDA jaso du, PP alderdiak horretarako egin zuen eskaerari erantzunez. Izan ere, Carmen Larrañaga alderdiko zinegotziak “zerbait egin ezean fatxada hondatzen joango dela” azaldu zuen eskaera aurkeztean. Arazorik larriena

hegaztiak, batez ere usoek eragiten dute eta, horregatik, horiek udaletxetik urruti egon daitezzen zerbait pentsatu beharko dute. Usoen gorotzek eragindako akzio kimikoak porlana eta hormigoia desgaiten dute eta gaur egun usok eraikinetatik aldentzeko eskaintzen diren aukerak aztertuko dituzte, alde onak eta txarrak baloratu eta egokiena aukeratzeko.



Foru Aldundiaren udalekuak


UDALEKO GAZTE INFORMAZIO BULEGOAK ADITZERA EMAN DUENEZ, MARTITZENAZ GEROZTIK ZABALIK dago Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetan izena aurrez emateko epea. 7 eta 13 urte bitartekoek hilaren 26ra arte izango dute horretarako aukera eta 14-17 urte bitartekoek, berriz, apirilera arte itxaron beharko dute horretarako, epea apirilaren 21ean zabaldu eta 29an itxiko da eta. Informazio gehiago jaso edo izena eman nahi duenak www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunera jo dezake edo, nahiago izanez gero, 943445980 telefono zenbakira deitu. Udaleko Gazte Informazio Bulegora ere joan (Portalea, 1. solairua) edo deitu (943708435) daiteke.

anzorik anzo



Estalitako parke gardena Txaltxa Zelairako

Txaltxa Zelaian, epaitegiaren parkea hobetzeko beharrak egingo dituzte. Udal aurrekontuan 200.000 euroko partida jaso dute, EB-Aralarrek aurrekontuaren zirriborroari aurkeztutako zuzenketaren harira. Koalizioak aterpedun parkeren bat prestatzeko proposamena aurkeztu zion gobernu-taldeari, eguraldi eskasa dagoenean jendeak non egon izan dezan eta haurrek jolas-teko aukera izan dezaten. Proposamena onartuta, Txaltxa Zelairako parkean estalki gardena izango duen gunea prestatzea erabaki dute; aurrerago, Urkizu inguruan beste horrenbeste egiteko aukera ez dute baztertu. Udalak Ermuko adibideari jarraituko dio, bertan estalitako parke bi badaudelako, San Pelayokoa eta Valerio plazakoa.



Oinezkoentzat trabak Arrate-Biden

Arrate-Biden oinezkoek ibiltzeko arazoak dituztela salatzen idatzia helarazi digu erredakziora EB-Aralar koalizioak, “bertan bizi direnen ahotik horren berri jaso eta gero”. Legarren, San Andres pasealekuaren parean etxebizitza berriak egin dira eta, horregatik, inguruak hainbat aldaketa jasan ditu. Koalizioko ordezkarien berbetan, “*urtarrilaren 11n eskaera partikular bat aurkeztu zuten Pegoran, beharrak egitean hainbat konturi erreparatzeko eskatzen, baina beharrean hasi dira, eskaera kontuan hartu barik*”. Bizilagunak eskatutakoa honakoa da: eskailera mekanikoetara joateko edo, alderantziz, eskaileretatik beste aldera bidea errazago gurutzatu ahal izateko, erdian oinezkoen babes-gunea ipintzea eta, horrez gain, automobilerik zebra-bidearen gainean aparkatu ez dezatela. Bide batez, koalizioak Udalarari “*herri-tarren eskaera eta kezak gehiago kontuan har ditzala*” gogorazti eta “*konponbideak automobilentzat ez ezik, oinezkoentzat ere bilatu behar direla*” adierazi nahi dio.

asteko

189

datua

ezbeharretan laguntzen jardun zuten iaz Azitaingo industrialdean egoitza duten suhiltzaileek. Arrate suhiltzaile-parkeak Debabarrena osorako zerbitzua eskaintzen du eta 2009an 60 su amatatzera, 98 salbamendu egitera, 3 laguntza tekniko eskaintzera eta 19 alarma faltsuri erantzutera joateko irteerak egin zituzten.

Sansaburuko frontoi berriztatua inauguratuta

SANSABURU INGURUAK ITXURA-ALDAKETA HAUNDIA IZAN DU AZKEN ALDI HONETAN, aurreko barixakuan Sansaburuko frontoi berriztua inauguratzearekin batera: Haurreskolaren ostean eta auzoko gunearen artean dagoen tarte, hau da, lehengo frontoi zaharra eta haren ingurua goitik behera berreskuratu da. Beharrak amaituta, Miguel de los Toyos alkateak aurreko asteke barixakuan inauguratutzat eman zuen frontoia. Udaletik adierazi diguten arabera, *“egin diren beharrei esker Urki auzoak eta Eibarrek berak parke eder berria du, aisialdirako gune estali batekin”*. Construcciones Urasak egindako beharrek sei hilabeteko iraupena izan dute eta 344.242 euro ordaindu zaizkio, horretarako iaz Madrillgo gobernuak Tokian Tokiko Inbertsioetarako Estatuaren Funtzaren bitartez emandako laguntzak aprobetxatuta.



Sei hilabete eta 340 mila eurotik gora behar izan dira frontoia egiteko.


Udal agintariek azpimarratu dutenez, *“ikusgarriena frontoia bera da. Berriztatu ondoren argitasun handia izango du, jendeak gauez edo gutxi ikusten den egunetan ere erabiltzeko aukera izan dezan. Horrez gain, zorua eta hormak goitik behera berritu zaizkio”*. Bestalde, Sansaburuko parkera ailegatzeko bide berria egin da: horrenbeste eskailera igo beharrik ez izateko, arrapala egin

dute, *“Jose Antonio Iturrioz kaleraino erosoago eta errazago joan ahal izateko”*. Beharrak biribiltzeko, kanpoko ertzak baldosekin errematatu dituzte eta ura batzeko sistema guztiak ipini dira, frontoiko jarlekua garbitu eta egurrez jantzi dute eta paperontziak eta barandak ipini dituzte. Horrez gain, argiztapen-instalazioa berritu dute eta landareekin apaindu dituzte inguruak.

Harrera ona padel pista berriei

UNBEKO KIROLGUNEAN PADELEAN ETA TENISEAN JOKATZEKO PISTA BERRIAK ZABALDU ZITUZTELA HILABETE BI igaro dira eta, arduradunek diotenez, *“jendeak oso harrera ona egin die”*. Eman dituzten datuen arabera, urtarrian 964 lagun gerturatu zitzaizkien instalazio berriak probatzera eta otsailean oraindik jende gehiagok erabili zituen, 1.324 lagunek hain zuzen ere. Padel pistak erabili ahal izateko aurretik txanda eskatu behar da. Kirol Patronatoak aditzera eman duenez, *“astelehenetik barixakura, iluntzeko 19.00-etatik aurrera, urteko erretserba duten taldeek erabiltzen dituzte pistak, baina goizetan, 15.00ak arte, patronatoko bazkideek pistak doan erabiltzeko aukera dute”*. Bestalde, asteburuetan jende askorik ez dela joaten azaldu dute eta, beraz, probatu nahi duenak asteburuetan horretarako aukera bikaina duela diote.

Pista berriak iazko abenduaren



9an inauguratu zituzten eta horiek egiteko beharretan 750.000 euro erabili zituzten, 2009ko Tokian Tokiko Inbertsioetarako Estatuaren Funtzaren finantzatuta. Udaletik adierazi dutenez, *“kirol jardueren inguruko gustuak aldatzen joan dira eta Udal honek modalitate horren alde egin duen apustua horretan oinarritu da. Tenis pista bat kendu zen, haren lekuan padel pista bat jarrita, eta tenis zein padel pistei teilatua ipini zitzaien”*.




Ego-Gaineko beharrek aurrera dira

AZKEN HILABETEOTAN EGO-GAIN KALEA ERABAT ERALDATU DA Alfa bota eta El Corte Inglés eta inguruam etxebizitzak jaso zituztenetik. Horrez gain, Ego erreka bistan geratu da eta parkea atondu dute inguru guztian. Bestalde, Isasi kaleraino eskailara mekanikoak ipini dituzte martxan. Beharrik handienak amaitu dituzte, baina oraindik azken zer-

tzeladetan dihardute: autobus geltokiaren aldameneko horma eta lurzorua konpontzen jardun dute azken egunetan eta, gainera, argi berriak ipiniko dira. Horrez gain, El Corte Inglés-ak Ego-Gaineko etxe berriak eta Barrenengua kalea lotuko dituen igogailua eraikitzen dihardu eta, aurreikusitakoaren arabera, apirilera erabiltzeko moduan izango da.

Eskualde batian denboran zihar gertatzen dan klimaren aldaketia da Aldaketa Klimatikua. Lurraren historixan zihar holako aldaketa asko emon dira, glaziaziñua kasu, eta azken urtietan planetia berotzen daguala zabaldu da mundu osuan. Halanda be, kontrako eritzixa dakenak be badagoz.

Aldaketa klimatikuan siñesten dozu?



CARMEN GOIKOETXEA
79 urte
etxeakoandria

Nik siñesten dot. Begittantzen jata oiñ udaberrixa ez dala udaberrixa, uda ez dala uda, negua ez dala negua eta udazkena ez dala udazkena. Urteko sasoi bi bakarik daguazela emoten dau. Gaiñera, begittantzen jata lehen nequak gogorraguak izaten zirala.



ALBERTO AMESTI
74 urte
jubilaua

Gaztetik gogoratzen doten klima eta oinguan aldiari aldaketia daguala begittantzen jata. Zergaittik gertatu dan hau? Egixa esan ez dakitt. Begittantzen jata lehen nequak gogorraguak zirala, euri gehixago egitten ebala. Halanda be, aurtengo negua be gogorra izan da.


VICENTE MARKINA
66 urte
jubilaua

Zalantza barik, bai. Berogailu efektua eta halakuak gertatzen dirala begittantzen jata. Gaur egunian udian eta neguan artian aldaketa goiztiarrak gertatzen dirala begittantzen jata. Sasoitik kanpo emoten diran aldaketak dira, ohikuak diren sasoietatik kanpo gertatzen diranak.



M^a LUISA ZULOAGA
71 urte
etxeakoandria

Txikixa nintzanian baserrixan izotz-kandelak eguazen eta oiñ ez dittut kalian ikusten. Aldaketa klimatikua gertatzen dala? Ez dakitt. Ikerketak euren arrazoia eukiko dabe, baiña nik ez dakitt zer esan. Oiñ egitten daben bero eta hotz izugarriak lehen be gertatzen zirala pentsatzen dot.



KATU  **KALE**
BIDEBARRIETA, 1 **TABERNA**

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL

 **Bulego altzariak eta materiala**
PAPERDENDA

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - beheko eskua

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errusketak labea
Egoitza (Signo poligonoa)
Partikular, multzo eta osaguri enesi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaizkigu
Nazio eta Nazioarteko trukeak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Aurreko asteko eguenian, martxuaren 11n, egin eban urteko batzarra ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Elkartaren egoitzara bertaratuak bazkidiak aho batez onartu eban 2010erako kuoten eguneraketia eta alkartiaren zuzendaritzaren osaketarako aurkeztutako proposamena, izako urteko balantziari errepasua emon eta aurtengo proiektuen barri jaso eta gero. Erakunde publikuak alkartiari emondako diru-laguntzetan izandako jaitseriesiak batzarrera juandako bazkidiaren kezka eragin eban.

2009ko baloraziñua egitteko orduan, Koldo Mitxelena ...eta kitto! Euskara Elkarteak koordinatzaillak izakua "urte garrantzitsua, baina oso gogorra" izan dala azpimarratu nahi izan eban. Izan be, urte hasieran aldizkarixak Eusko Jaur-laritzaren eskutik Ukan sarixa eskuratu eban arren, uste baiño jaitseriesia haundixaguak izan ziran diru-laguntzetan eta horrek alkartiaren ekonomixan eragiña euki eban modu inportantian.

Aittatutako sarixa aldizkarixak izandako barrikuntzarekin zuzenian lotuta aillergau zan. Izan be, aldizkarixak urtebete egin dau diseiñu eta atal barrixekin. Horrekin batera, aldizkari osua koloretan kaleratziari ekin jakon.

Baiña beste aldaketarik be izan zan iaz: Euskara Elkarti-



ren Gaztedia saillari bultzadia emon jakon, bestiak beste herriko gaztien lokaletako kuadrillekin hartuemon indartuta. Horretarako, alkartiak kuadrillen arteko norgehiagoka barrixa ipiñi eban martxan: Pentatloia. Lehelengo antolatutako lehiaketiak oso harrera ona euki eban gaztien artian: bost lokaletako gaztiak parte hartzia lortu zan eta, aurrera begira, bide horri euste-ko asmua dago.

2009xan indarbarrittutako beste ekitaldi bat Sagardo Eguna izan zan. Urtebeteko etenal-dixaren ostian, iaz atzera be Sagardo Eguna antolatu eban ...eta kitto! Euskara Elkartiak. Baiña ekitaldixak barrikuntza nabarmen bi euki zittuan: bate-tik, aurreko ediziñuetan bakarrik arratsalde ospatutako jaixa



Zuzendaritza kide barrixak onartu zittuan batzarrarian batutako bazkideztak. / EKHI BELAR

Diru-laguntzetan emondako jaitseriesia, ...eta kitto!-ren batzarraren ardatz

egun osoko ekitaldixa izatera pasau zan eta, horrekin batera, gure inguruko sagardaua probatzeko aukeria eskintziaz gain, Euskal Herritik kanpo egitten diran batzuk be ekarri zittuen. Eta Untzagako plaza bixak egun osuan hartu eban jaialdixan sagardaua zelan egitten dan zuzenian ikusteko tartia be egon zan. Mitxelenak oso modu positibuan balorau eban ekitaldixa.

144 bazkide barri

Ekitaldi horrez aparte, iaz ...eta kitto! Euskara Elkartiak garatutako bazkideztak kanpaiña azpimarratu eban batzarrarian: "Bazkide barrixak lortzeko kanpaiña 2008xan eta 2009xan eruan dogu aurrera, fase bittan banatuta. Lehelengo fasiaren helburu nagusixa gure bazkide-

ri emoten deskuen laguntasun eta babesarengaitik gure esker ona adieraztia zan eta, horretarako, ...eta kitto!-ko bazkide-txartela sortu eta banatu genduan, bestiak beste. Eta kanpaiña bigarren fasian helburua bazkide barrixak lortzia izan zan. Iazkua alkartiaren historixan bigarren kanpaiña nagusixa izan da eta, horri esker, 144 bazkide barri lortu genduzen".

Baiña alde positibuak aittatzeko modokuak izanda be, alkartiak jaso ohi dittuan diru-laguntzetan izandako murrizketak benetan garrantzitsuak izan dirala argi laga nahi izan eban batzarrarian: "Lehenagotik be bagenkixan krisi urtia izango zala, baiña, halanda be, espero gendua baiño jaitseriesia haundixaguak izan dittugu: Gipuzkoako

2010eko aurrekontua

SARRERAK	EUROETAN	PEZETATAN	%
Publizitatea	203.383	35.172.984	42,28
Mezenazgoak (Kutxa, Eroski)	5.403	898.984	1,12
Bazkideen ekarpena	19.000	3.161.334	3,95
Udala (hitzarmena)	51.930	8.640.550	10,80
Gipuzkoako Foru Aldundia	52.650	8.760.223	10,95
Jaur-laritza	67.614	11.250.023	14,05
Jardueren bitartez	81.067	13.488.414	16,85
Guztira	481.047,75	80.039.612	100,00

AUTOFINANNTZIAZIOA: %62

IRTEERAK	EUROETAN	PEZETATAN	%
Langileak	245.927	40.918.810	49,70
Funtzionamendu gastuak:			
bulegoa, aseguruak,			
aholkularitza, garraioa...	48.199	8.019.639	9,74
Jardueren antolamendua	65.553	10.574.329	12,84
Inbertsioak	2.990	497.494	0,60
Gastu mekanikoak	133.000	22.129.338	26,88
Bankuak, merkatal			
kobrazinak	1.200	199.663	0,24
Guztira	494.869	82.339.273	100,00

Foru Aldundixak emoten daben laguntza %13'70 jaitsi da eta Eusko Jaurlaritzak emondakuan murrizketia %14'84kua izan da. Gauzak holan, eta gure errealidiari begira ipintzen bagara, diru-laguntzetan izandako jaitsieriak gure eguneroko biharrian eragin zuzena euki dau eta eragiña oindiok haundixagua izango da aurten”.

Proiektu barrixerri ekiteko prest

Izan be, egoera ekonomiko barrixak 2010erako proiektuak eta jarduerak alkartiaren aurrekontura moldatu biharra ekarri dau. Ondoriorik zuzenena, dana dala, ...eta kitto! Euskara Elkartiaren bihargiñengan emon leikiala azaldu eban Mitxelenak: *“Bihargiñak hasieratik dakigu zelako situaziñuan gagozen, geure artian berba eginda dago eta argi dakagu alkartiaren proiektuak aurrera egittia dala lehentasuna, eta hori lortzeko biharrian segi-zeko prest gagozela”.*

Egoera ekonomikua eskasa izanda be, ...eta kitto! Euskara Elkartia, betiko martxari jarraituta, proiektu barrixerri ekiteko prest dago. Horregaittik, batzarrera gerturatutako bazkidieri ilusiñuakin aurkeztu zetsazen aurten martxan ipiñiko dittuen proiektu barrixak: *“Badira urte batzuk Berbetan, euskaldunbarrixak euskeraz berba egittera animatzeko proiektua martxan ipiñi genduala eta honezkeroko finkatuta dagan egitas-mua da, oso emaitza onarekin, gaiñera. Horrekin animauta, beste pauso bat emotia erabagi dogu eta irailletik aurrera herriko Haur Hezkuntzako umien gurasueri euskeraz praktikatzeko aukeria eskindu nahi detsagu, interesa daken gurasuekin talde barrixak osatuta. Hori lortzeko biharrian hasitta gagoz eta, ikastetxien laguntasunarekin, ume horren gurasuak animatzia espero dogu”.*

Soziolinguistikaren bidetik

Batzarrian azaldu eben moduan, *“jakin badakigu kalkan, ...eta kitto! Euskara Elkartia ai-*



2009ko egitasmen artian, egindako bazkide-kanpaiña azpimarratu eban alkartiak. / KOLDO MITXELENA

ttatuta, jendiak gehixen ezagutzen dabena aldizkarixa dala. Edozelan be, ez da ahaztu bihar alkartiaren lan-esparrua euskeriaren erabilleraren normalizaziñuarekin zuzen-zuzenian lotuta daguala eta, horregaittik, ezin dittugula albo batera laga asmo hori lortzen lagunduko deskuen ekitaldi eta programak. Bide horretan, alkartiaren normalizaziño arlotik hitzaldi soziolinguistikuak preparatzen dihardugu. Hain zuzen be, DBHko ikasle eta irakasleri bereziki zuzendutako hitzaldi bi prestatu dittugu, lehenik eta behiñ herrixan bertan eskintzeko asmuarekin eta, honezkeroko, ikastetxietako arduradunak proiektuaren gaiñeko interesa dakela azaldu deskue”. Herrixan jasotako erantzunaren arabera, aurrera begira eskintza herritik kanpora zabaltzeko aukeria aurreikusten dabe.

Bestalde, urtian zihar egingo diran jarduera barrixen zerrenda biribiltzeko, euskeriak gure herrixan dakan egoeriaren gaiñeko hausnarketa egitteko asmua daka ...eta kitto!-k: *“Azken hamar urtiotan Eibarren jasotako datu soziolinguistikuak oiñari modura hartuta, oiñ arte Eibarren bizi izan dogun egoeria aztertu eta etorkizunian egin biharrekuaren gaiñeko hausnarketia egitteko momentua aillegau dala pentsatzen dogu eta, horretarako, alkarteko bazkidietatik*

kanpo, edozeiñ eibartarrek parte hartzeko prozesua hastia da gure helburua”. Bazkide kuoten eguneratzia be onartu zan batzar nagusixan, KPla gehittuta. Aurten bazkidiak pagau biharreko kuotak honetxek dira: 16 urte-tik beherakuendako 4'29 euro; langabetu, ikasle, jubilau eta etxeoandrientzat 9'65 euro; eta bihargiñentzat 38 euro.

Egoera ekonomikuarekin kezkatuta

Ohikua danez, batzarrian iazko dato ekonomikuen gaiñeko azalpenak emon zittuen eta, horri jarraituta, 2010erako aurreikusittako presupuestuaren gaiñeko proposamena presentatu zan: 494.869 euroko aurrekontua izango dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak, urtian zihar egin biharreko guztietarako. Aurrekontua osatzeko orduan, diru-laguntzetan izandako jaitsierak eta bestelakuak euki dittue kontuan eta, horri aurre egiñ ahal izateko, ...eta kitto! Euskara Elkartiak 13.821 euroko galera bere gaiñ hartzia erabagi bihar izan dau, Mitxelenak azaldu eban moduan: *“Diru hori alkartiak dittuan fonduetatik ipiñi biharko dogu, hortik aurten gure autofinanziazziño-mailla %62-kua izatia”.*

Presupuestua onartu bazan be, batzarrera gerturatutako bazkidiak argi azaldu eben al-

kartiaren egoera ekonomikua- ren inguruko euren kezka, batez be diru-laguntzetan izandako jaitsieriak eragindakua. Galdera eta iradokizunetarako tartian beste batzuetan baiño parte-hartze haundixagua egon zan eta, bestiak beste, bazkide barrixak lortzeko beste kanpaiñarik aurrekusi dan galdetu eban bazkidietako batek. Horri erantzuten, udazken partian, Bazkide Jaixaren inguruan egingo dala aurreratu eben alkarteko ordezkariak.

Diru-laguntzetan izandako jaitsieraren harira, barriz, Udalak emondako kopuruak zeresana emon eban. Euskara Elkartiak eta Eibarko Udalak diru-laguntzaren gaiñeko hitzarmena dake eta, horri jarraituta, 2009xan 70.030 euro emon zetsazen Udalak. Aurten, barriz, 51.930 euro jasoko dittu ...eta kitto!-k Udalaren eskutik, aurreko urtian baiño %25 gitxiago. Horren aurrin bazkidiak eta, oro har, herritarrak zeozer egin biharko leukiela azaldu eben batzarrian batutako bazkidiak. Izan be, Berbia Emon hitzarmena kudeatzearengatik jasotzen zuen partida osoa ez du jasoko 2010ean ...eta kitto!-k. Eta Txikitto! aldizkaria online baiño ez da zabalduko, inprentarako gastuak ez dittu-eta diruz lagunduko Udalak. *“Aldizkarixari laguntzia, baiña proiektu soziolinguistikueri ez laguntzia ez da onargarrixa”*, batzarrian bazkidetzak azpimarratutakuaren arabera. Aldizkarixaz gain, bestelako proiektuak ezinbestekuak dira; *“Berbetan, Berbia Emon edo Harixa Emotenek egitten daben lan haundixa azpimarratu biharra dago”*, azpimarratu zan.

Erakunde publikuen joeria zelakua dan ikusitta, beste erakunde batzuen babesa lortzeko bidiak zabaltzia aurrekusi dala azaldu eben alkarteko ordezkariak, banku eta bestelako enpresa batzuk eskintzen dittuen diru-laguntzak buruan.

“Aldizkarixaz gain, garrantzitsua da oso proiektu soziolinguistikueri eustia”

Finlandiatik zuzenean

UNI Eibar-Ermuak ordezkatzeko bikoitza izan du Finlandian azken astean. Batetik, 23 ikasle eta irakasle bi Lappeenranta egon dira elkartrukean. Eta bestetik, Carmelo Oyarzabal UNIKo UrratsBateko dinamizatzaileak jardunaldi batzuetan hartu du parte han.

Martxoaren 8tik 14ra egon dira UNI Eibar-Ermuako 23 ikasle eta irakasle bi Lappeenranta (Finlandia), baina bidaiari lehenagotik hasia zuten. Izan ere, eibartarrek posta elektronikoa eta Facebook bitartez landu dute Finlandiako euren 'bikoteekin' harremana. Honek argi uzten du teknologia berrien inguruan UNIKoak beti izan direla aitzindariak, baina ez horretatik bakarrik.

UniEncounterrek, berez duen garrantziaz gain, bere erabilgarritasuna erakutsi du oraingoan Finlandiara egin den bidaiari honetan. Azken UniEncounterrean, azken egunean, bertan egin ziren hitzaldiak zuzenean igorri ziren interneten. Normalean hauek grabatu eta ondoren DVD bat grabatzen zuten antolatzaileek, baina teknologia berriak erabiliz pauso hori ematea erabaki zuten. Bada, oraingoan, Finlandiako bidaiari zuzenez zuzenean bizi ahal izan da www.iesunibhi.com/info webgunean. Horrela, hango hotza pasatu barik, bakoitzaren etxetik jarraitu ahal izan da eibartarrek han bizitakoa. Gainera, egindako transmisio guztiak daude bertan eskuragai.



Aurten, lehenengoz, bidaiari internetez jarraitzeko aukera egon da.

"Bidaiaren helburuak, hala ere, beste batzuk ziren. UNItik adierazten dutenez, helburu hirukoitza genuen". Lehenik, beste herri bat eta bertako ohi-turak ezagutu. Bestetik, "nola ez", atzerriko hizkuntzak, batez ere ingelera, praktikatu, "guztiok baitakigu bere garrantzia zein den eta klasetik kanpo erabiltzeak duen garrantzia". Eta hirugarrenik, munduko hezkuntza sistema aurreratuena gertutik ikusi eta ahal den gehiena ikasi, "bai ikasteko, bai irakasteko".

Ekimen jardunaldiak

UrratsBateko dinamizatzaile talde batek, UNI Eibar-Ermuako Carmelo Oyarzabal tartean, ekimen proiektuekin zerikusia duten jardunaldi batzutan hartu dute parte Finlandian TKNI-KAko kide batzuekin batera.

Parte-hartzaileek lan-talde ezberdinetan bizi izan den giro ona azpimarratzen dute, "horiek osatzen zituzten kideen baliagarritasunarengatik". Aipatu behar da, bestetik, Leonardo programari esker egin ahal izan direla jardunaldi hauek.



La Sallekoak Candanchún

ESKI DENBORALDIAN MURGILDUTA GAUDE eta hori aprobetxatu nahi izan dute La Salle Azitainekoak. Otsailaren 18 eta 19an DBHko 3. mailako ikasleak Candanchun izan ziren eski alpinoko ikastaro bat egiten eta, bide batez, ikasitakoa praktikan ipintzen. Horrez gain, ikasle eta irakasleek elkarrekin egun zoragarri bi pasatzeko aukera izan zuten eski-estazioa aragoarrean.



“Irrati ‘pirata’, kalitate gutxikoa eta entzuten zauden bitartean ezustekoak ematen dituena”. Horrela definitzen du bikote honek Matrallako Irratia. Eten baten ostean Eibarko irratietan entzungai dago berriz ere Matrallako. Edonor hurbildu daiteke bertara eta bere saioa egin. Horretarako da irratia librea.

“Matrallako librea da eta ondo pasatzea da asmoa”

- Eten baten ostean otsailean berriro ere emititzeari ekin zenioten. Nola doa kontua irratian?

Denbora asko egon da geldirik eta berriro hasi gara. Printzipioz musika daukagu ipinita eta programa bat ere hasi zen, baina ziklogenesiarekin hondatu egin zitzaigun. Hortan gabiltza. Musika badago, jendea hurbildu da eta hasteko prest gaude. Beraz, dena ondo martxan jartzeko hastekoak gara.

- Zergatik eman da eten hau emisioan?

Arazo bat izan genuen ordenagailu batekin, arazo teknikoak. Beste sistema eragile bat instalatzen saiatu ginen, Linuxa, baina ez zebilen ondo. Gauza da soinu-txartela ez zebilela ez Linuxarekin, ez beste sistema eragileekin ere. Beste kontu bat da beti jende berdina ibili garela irratia atzean. Esan daiteke horrek nekea ekarri duela. Arazoa gertatu aurretik ondo genbiltzan, baina geldione horrek gu ere gelditu gaitu. Hilabete ezer egin barik, gero beste hilabete bat... Jendeak ere bere bizitza dauka, batzuk umeak izan dituzte... Hainbat gauza batu ziren. Baina orain jende berria gerturatu da eta irratia piztu dugu berriro. Kontuan izan behar da ere bazkideak ditugula eta kuota ordaintzen dutela, beraz, euren-gatik izango ez balitz, irratia gutziz amaituko litzateke. Modu batean esatearren bageneukan funts ekonomikoa, beraz, irratia bizirik egon da denbora guz-

tian, geldirik, baina hor. Esan daiteke lo egon dela.

- Orain irratia piztuz gero, zer entzungo genuke?

102,8an musika egongo litzateke entzungai. Egun osoan printzipioz, baina kontuan izan behar da irratia Legarreko lokaletan dagoela kokatuta, beraz, lokaletako argia joanez gero irratia moztu egingo litzateke. Esan digute lokaletako argindarraren kontua ere aldatuko dutela, beraz, guretako hobe. Aditu batek esan digu hori egin ez gero ez dela eten gehiagorik egongo eta berehala konponduko zuela, Aste Santua baino lehenago.

- Arazo teknikoak alde batera utzita, irratian bertan zentratu ahal izango zarete.

Aparatuak printzipioz etengabe emititu dezake. Gu desiatzen gaude berriro ere martxan jartzeko. Lehen diruaren arazoa geneukan, baina orain konpondu dugu bazkideei esker. Gauza da argindarraren kontuarekin eta ordenagailuaren arazoarekin gauza horiek konpontzen ibili garela, denbora osoan horren atzetik, eta jendeak badauka gogoia berriz ere programak egiten hasteko (Danik dio Anderrek oso programa ona egiten duela, eza-gunena behintzat, Euskal Herri osoan entzuten dena).

- Orain dela egun gutxi Asanblada egin zenuten. Zer aterazten hortik?

Guk ikusi nahi genuen ea zein etortzen zen eta zein asmorekin. Teknikoak esan zuen



DANI ETA ANDER
(Matrallako Irratixa)

ziklogenesiak sortutako arazoak konpondu zirela eta posible dela irratia aurrera ateratzea. Jendea hurbildu zen programak egiteko asmoarekin eta irratia nolabaiteko bultzada emateko gogoarekin. Betikoek jarraituko bagenu eta arazo teknikoa konponduko ez balitz, agian beste urtebete jarraituko genuke geldirik. Gu pozik gertatu ginen, nahiko jende batu ginen, aspaldian gertatzen ez zena eta ikusi genuen irratia aurrera egiteko arazoak badaudela. Gauza polita da hori, garrantzitsuenak.

- Berritasunik egongo da programazioan?

6-7 programa egingo ditugu Matrallakon, horietatik lau be-

riak izango direnak. Batzuk hilean behin egingo dira, baina Arrosa sarean gaudenez, bertatik hartzen ditugu saio ezberdinak programazioa betetzeko eta oso pozik gelditzen gara. Gainera, orduro Info7-ko albisteak jartzen ditugu, hori litzateke alde serioena irratian.

- Edonor hurbildu daiteke Matrallakora?

Irrati librea gara eta esku zabalik hartuko dugu jendea. Arau nagusia euskeraz edo beste hizkuntza minoritario batean egitea da. Nola funtzionatzen duen azaldu eta kitto, euren da irratia. Ondo pasatzea da asmoa eta bakoitzak bere gustuko saioa egitea. Polita da irratia eta saio bat egitea.

GREMIOEN GIDA

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

AROTZAK

ulmar
S.L.



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzate proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Beherehabilitazioa etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Fatxadetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA EC
INSTALAZIO ENERJIA
TELEKOMUNIKAZIOA
INDUSTRIA BANTERUA
ARREBATUAK
ERREFORMAK

GARBIKETAK

Escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13

Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

Cristalux

Egiturak, barruko eta kanpoko atekak,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
I B A S L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

CRISTALUX
Completa

cristaluxbe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08

Mobila:
659 58 35 32

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK

*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia

Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27

www.electricidadguria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171

Barrena, 26 - 6. C



**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua



- Barne apainketak
- Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11

Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



IRAIZABAL
CONSEJO REGULADOR, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZATATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketarako
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kokakazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Datorren urtean ere Euskal Herriko xake talde onenekin batera

ERRONKA ZAILA ONDO AMAITU DA EUSKAL LIGAN DIHARDUEN KLUB DEPORTIBOKO XAKE TALDE NAGUSIAREN-TZAT. Bost ordu eta erdi iraun zuen lehiaren ondoren, eibartarrek goi maila horri eustea lortu zuten eta, horrela, datorren urtean ere onenekin jardutea. Azken jardunaldi horretan, Donostiako Gros xake taldearen lokaletan, eibartarrek 3-1 irabazi zioten Iruñeako Orvina B-ri, Haritz Garro, Olmo eta Aranaren garaipenekin.

Gipuzkoako 1. mailako taldeari, aldiz, zaila ipini zaio mailari eustea, azken asteburuan 0'5-3'5 galdu eta gero. Biharko azken jardunaldian Donostiako Fortuna B-ri irabazi beharko diote derrigorrez.

Eskolarteko txapelketa

Iker Narbaiza DBHko

1. eta 2. mailan, Ander Magunazelaia 5. eta 6. mailan eta Jon Magunazelaia 3. eta 4. ean izan dira azken domeka bietan jokaturako eskolarteko txapelketen azken irabazleak.



Arratek martitzenean hartuko du Granollers Ipuruan

PUNTU BIKO ALDEA DAGO SAILKAPENEAN, KATALUNIAKO TALDEAREN ALDEKOA; han, Granollersen, jokaturakoaren partiduen emaitzak ahalbidetutakoa. Horregatik -eta arriskuzko ur handiagotan ez sartzeko- behar ditu Ipuruako puntu horiek Julian Ruizen taldeak. Hamabost puntu ditu egun Arratek, Lábaro Toledok dituen berberak; puntu bakarrera daude Alcobendas eta Torrevieja, eta laura dago bigarren jaitsiera postua betetzen duen Academia Octavio. Tarte hori da Eibarko taldeak zaindu behar duena denboraldia amaitzeko bederatziz jardunaldi falta direnean.




Davor Cutura Arrateko jokalaria-ohia izango da Granollersen arrakatsuenetakoa.

Ciudad Real guztiahaldunaren aurka jokaturako partiduan, eibartarrek maila ona eman zuten, 28-23 galdu arren.

Euskadiko txapeldunak squash-ean

KLUB DEPORTIBOKO SQUASH TALDEKO HIRUKOTEAK LORTU DU GASTEIZKO MENDIZORROTZA KIROLDEGIAN jokaturako taldekako Euskadiko txapela. Eibartarrek, finalerdietan Gasteiz A kaleratu eta gero, Sestaoko Bene-

dikta ordura arteko txapelduna gainditu zuten finalean hiru neurketetatik bitan irabazi ondoren. Alberto Ferreirok eta Sergio Salgadok jokaturako partida guztietan irten zuten garaile; Jon Losada 3. ordezkariek ez zuten hainbeste zorte izan.



Jaialdia Astelenan bihar arratsalderako

PELOTA PROFESIONALEKO BURUZ-BURUKOAREN LEHENENGO URRATSAK EMANGO DIRA BIHAR arratsaldeko 17.00etatik aurrera Astelena frontoian. Cabrerizo II.ak eta Ongayk neurtuko dituzte indarrak jaialdiko lehen partiduan eta, jarraian, Aspe eta Asegarce enpresen arteko lehia izango da. Ez hori bakarrik, ia urte osoko lesiotik irten berri den Barriolak bere bigarren partidua jokatuko baitu: Pablo Berasaluze berriztarra (goiko argazkian) lagun duela, Aritz Lasak eta Mendizabal II.ak osatutako bikoteari egingo diote aurre. Azken norgehiagokan, Apezetxea-Cecilio eta Ibai Pérez-Arruti arituko dira, nor baino nor.



Etzaniz-Bengoetxea, garaile Elgoibarren

Atxotegi-Loiola bikoteak bedurra ematen badu ere bere frontoian, Elgoibarko ordezkariek amore eman behar izan zuten oraingoan Deporrek Etzaniz-Bengoetxearen aurrean. Azken hauek apenas egin zuten akatsik eta, azkenean, 22-8 nagusitu ziren. Udaberri torneoan, bestalde, Agirresarobe-Erik bikoteak 20-22 galdu zuen Astelenan seguratarrekin.



IÑAKI OSORO

Malvar beteranoa Espainiako kros txapelduna

A CORUÑAN ASTEBURUAN JOKATURAKO ESPAINIAKO KROS TXAPELKETAN, Juan Jose Malvar Klub Deportiboko ordezkariek txapela eskuratu zuten 65 urtetik gorako betera-

noen mailan. Sei kilometroko distantziari egin behar izan zioten aurre maila horretako atletek. Goiko argazkian, Malvar Lasarten jokatzeko den krosaren aurtengo edizioan.


Udaberri Saria Sergio Rodríguezentzat

BEOLA MOTOR TALDEKO SERGIO RODRÍGUEZEK IRABAZI ZUEN DOMEKAN jokatutako jubenil mailako Udaberri Saria. Garailea tropel handi bateko esprintean nagusitu zen, Sumofic-eko Mikel Aristi eta Galdeanoko Jon Ezagirreren aurretik. Rodríguezek ia 42 kilometroko batzbestekoa egin zuen eta, irten zuten 182 txirrindularitik, 104k amaitu zuten 80 kilometro inguruko lasterketa. Mendiko sail-

kapena Caja Ruraleko Ander Altunarentzat izan zen eta talde berak irabazi zuen taldekoa; saiatuaren saria, bestalde, Elkar-Erandioko Ander Plazaolarentzat izan zen.

Abascal Oroitzarrea domeka goizean

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutuen duen kadete mailako proba horretako XXXI. edizioa jokatuko da domekan, 10.30etatik aurrera. 55 kilometro eta erdiko lasterketan, Eibartik Mendaroraino joango dira parte-hartzaileak, handik bueltan Maltzagara joko dute, hortik Bergararaino eta handik zuzenean Eibarreraino. Urkizun helmugaratuko den probaren amaiera eguerdiko 11.55erako dago aurrikusita.




Domekako hiru lehenak Untzagako podiumean. MAIALEN BELAUSTEGI

Eibar KEK domekan jokatuko du Leonen

JOSU URIBE IAZ EIBARKO ENTRENATZAILE IZANDAKOAK egingo die aurre armaginei domekan, 17.00etatik aurrera, Leonesa taldearekin. Puntu horiek garrantzi handikoak dira eibartarrentzat -Ponfe-

rradinarengandik hiru puntura gaur egun Alavésekin galdu ondoren. Hurrengo asteburuan, bestalde, Pouso iazko beste entrenatzaile-ohiaren taldeak (Guijuelok) bisitatuko du Ipurua zelaia.



Deporreko mendizaleak Kantabriar mendikatera



ASTE SANTUKO JAIEGUNAK APROBETXATUZ, URTEROKO TXANGOAN ANTOLATU DU KLUB DEPORTIBOKO MENDI BATZORDEAK, apirilaren 1etik 5era egingo dutena. Egun horietan zeharkaldi hauek egingo dira Asturias eta Leongo paraje horietan: eguenean hasi eta domekara arte, Collada de Carmonatik Celisera, Salentinostetik Fasgarrera, Degañatik irten eta bertara bueltatu eta, azkenik, La Peraletik Genestosa. Tartean, Catoute (2.117

metro), Cogollo de Cebolleu (2.084) eta Alcornón de Busmori (1.939) gainak zapalduko dituzte. Parte-hartzaileek ostatua Leongo Villablino herrian hartuko dute, Lacionako haran ederrean. Txangoaren prezioa 240 eurokoa da, pentsio erdian, eta aukera horretaz gozatzeari nahi duzuenok izena eman dezakezue oraindik Deporren bertan astelehen, eguazten eta eguenetan (19.30etatik 20.30etara), lehenbailehen joanda.

Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAIRA BERBA** Irratsaloan orantzungo ditu, eguerdiko 12.30etan.
Zure keza, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz
943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

Txelu Angoitia iurretarraren *Azken kolada* argazkiak irabazi du Armeria Eskolako Industria-argazkilaritza lehiaketaren IV. edizioa. Bigarren saria Juan Antonio Palacios eibartarraren *Bodegón industrial*-arentzat izan da eta hirugarrena, berriz, Javier Arcenillasek aurkeztutako *Leidefrost* lanarentzat izan da.

JUAN ANTONIO PALACIOS (argazkilaria):
"Gutako bakoitzak ikusi beharko luke egunsenti bat urtero"

- Noiz hasi zinen argazkilaritza munduan?

40 bat urte izango dira. Etxean laborategitxoan neukan eta han tratatzen nituen argazkiak. Tailerretik irten eta, han sartuta, batzuetan goizeko 03.00ak ailegatzen zitzaizkidan. Emaitza nire gustukoa ez bazen, nolabaiteko estresa sortzen zitzaidan; orduan, lagatzea erabaki nuen. Ordura arte familia argazkiak eta horrelakoak egiten nituen; gero, tailerretarako piezen argazkiak egin behar izan nituen eta kamara digitala erosi nuen. Kalitatea gustatu zitzaidan eta berriro heldu nion argazkilaritzari.

- Digitalizazioak argazkilaritza demokratizatu du?

Uste dut digitala erosoagoa dela eta, hainbat kontzeptu jakinda, nahiko erraza dela. Pixkanaka aukera ezberdinak aztertzen hasi nintzen, engantxatzeraino berriz ere.

- Natura argazki asko egiten dituzu. Zergatik?

Denetario argazkiak egiten saiatzen naiz. Azken aldiari arandegietako argazkiekin nabil, oso aukera onak ematen baitidate. Erretratuak egitea ere gustuko dut, lapurtutako erretratuak; adibidez, ekitaldi batean dauden lagunekin edo Aste Santuko prozesioetan parte hartzen dutenekin. Baina natura argazkiak beste gauza bat dira. Paisaia eta irudi ikusgarriez gozatzeaz gain, naturaz gozatzen duzu. Besteekin alderatuz, oso lasaia da, tripodea jartzen duzu, ikusten duzunaz gozatzen duzu... ezberdina da.

- Argazkiaren bila irtetzen zara ala argazkiak aurkitzen zaitu zu?

Bila joaten naiz. Nora eta noiz joan aurrakusten dut eta



banoa: goizean goiz esna naiten egunsentiaren bila. Gutako bakoitzak ikusi beharko luke egunsenti bat urtero. Une laburra izaten da, baina hor ikusten diren irudi, kolore eta abarrak zoragarriak dira. Gerta liteke, baita ere, goiz esnatu eta etxera esku-hutsik bueltatzea.

- Sari asko jaso dituzu zure argazkiengatik.

Arlo horretan nahikoa mugitzen naiz. Hilean hiru bat lehiaketatan hartzen dut parte eta, normalean, sariren bat edo beste jasotzen dut. Gutxienez material berria erosteko finantzaketan laguntzen dit.

- Zein sarik egin dizu ilusio gehien?

Indalezio Ojanguren lehiaketan sariak jasotzeak asko poztu ninduen, herrikoa izanda. Zentzu berean, Industria-argazkilaritza lehiaketan 2. postu honek asko poztu nau. Gainera, azken urteotan sarrietatik hurbil izan naiz, baina aurtan lortu dut.

- Pentsatu duzu argazkilaritza profesionalki jardutea?

Ez, niretzat zaletasuna da eta kitto. Uste dut profesionala izanik gustuko ez ditudan gauza asko egin beharko nituzke; beraz, nahiago dut niri gustatzen zaizkidan argazkiak egitea, gustukoen dudanean eta nahi dudana lekuan.



I. Euskarazko Lip Dub lehiaketa martxan

EIBAR.ORG ELKARTEAK ETA EIBARKO UDALAK I. EUSKARAZKO LIP DUB LEHIAKETA ANTOLATU DUTE. Euskeraz egiten den mota honetako lehen lehiaketa izango da, eta euskera, euskarazko musika eta Eibar sustatzea da helburua.

Edonork har dezake parte lehiaketan, 30 laguneko taldeak izan beharko dira gutxienez eta lanak egiteko euskeraz abestutako kantutak onartuko dira bakarrik. Izena emateko epea martxoaren 17an hasiko da eta eibar.org webgunearen bitartez egin behar da (oinarriak eibar.org/lipdub webgunean).

Grabazioak apirilaren 27a baino lehen entregatu beharko dira, orduan, bideoak Youtubera igoko dira eta boto gehien jasotzen dituzten 3 lanak izango dira finalistak lehiaketan. Irabazlea ekainaren 18an erabakiko da Coliseoan egingo den ekitaldian. Irabazlea erabakitzeke Coliseoko publikoak puntuen %50a emango du eta epaimahaiak beste %50a. Irabazleek 1.000 euroko eskudirua jasotzeaz gain 5.000 euroko balioa duten erosketa baleak lortuko dituzte Eibar Merkataritza Gune Irekiko bazkide diren establezimenduetan gastatzeko. Eibarko ikastetxeetako DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleentzako 1.000 euroko sari berezia banatuko da.



Narrea Agirre La Salleko Euskal Astean

LA SALLE IKASTETXEAK HILAREN 26RA ARTE MARTXAN IZANGO DEN EUSKAL ASTEARI EKIN ZION astelehenean. Horren harira hainbat ekitaldi antolatu dira eta, besteak beste, martitzenean Narrea Agirre kirolari eta aktorea La Salle Azitaingo Batxilergoko 1. mailako ikasleekin egon

zen. Ikastetxetik adierazten dutenez, "goxotasunez erantzun zituen ikasleek egindako galderak eta Goenkalen egiten duen lanaz luze jardun zuen". La Sallen urtero antolatzen duten ekimenaren inguruan hitzaldiak, kartel lehiaketak, Euskaraokea, zinea eta beste jarduera batzuk garatzen dira.

‘Oh happy day’ are eibartarragoa

BIDE POLITA EGITEN DIHARDU EIBARKO KORO GAZTEAK ETB1-EKO ‘OH HAPPY DAY’ SAIOA eta aste-buru honetako edizioa, gainera, berezia izango da eurentzat. Izan ere, eibartarrek Su Ta Garren ‘Itxaropena’ abestia interpretatuko dute etzi telebistan emango duten saioan.

Kantua prestatzeko egindako entsegetako batean, gainera, Su Ta Garreko Xabi Bastida eta Aitor Gorosabelen laguntza izan zuten gazteek eta, saioko arduradunek azaldu digutenez, neska-mutilentzat oso pozgarria izan zen bisita berezi



Eibarko koro gazteak Su Ta Gar-en ‘Itxaropena’ interpretatuko dute etzi ETB1-ean.

hori. Hala ere, abesbatzako kideen berbetan, *“are pozgarriagoa izan zen, kantatu eta gero, Aitorrek eta Xabik laudorio eta berba goxoak besterik ez izatea”*. Diotenez, *“hunkituta geratu ziren, bai Elena Martin zu-*

zendariak egindako konponketekin, bai koruak egindako interpretazioarekin”. ‘Oh happy day’-ko saiirik eibartarrena ikusteko aukera izango da zapatuan, 20.00etatik aurrera ETB 1ean.



ARRATE KULTUR ELKARTEAK ANTOLATUTA, BERTSO ASTEA OSPATU ZUTEN AURREKO ASTEAN KULTUN. Eguenean Arkaitz Estiballesek eta Beñat Gaztelumendik jardun zuten bertsoan, tabernako saioan, eta zapatuan bertso-bazkaria egin zen goiko solairuan, elkartearen

egoitzan bertan Amets Arzallus eta Sebastian Lizasorekin. Gaiak jartzen Eibarko Hankamotxak bertso eskolakoak ibili ziren. Azken urteotan herriko bertsozaleen agendan finkatuta geratu den jarduerak oso harrera ona izan zuen jendearen aldetik.

Goi mailako bertsolaritza Kultun

‘Antxitxiketan’, euskerazko berba irabazlea

EIBARKO EUSKALTEGI BIEK, UDALAREKIN BATERA ANTOLATUTAKO EUSKERAZKO BERBEN LEHIAKETA NORK IRABAZI DUEN aste honetan

bertan jakin dugu: Gorka Bustinduy eta Luci Ibazetak eskuratu dute saria (Coliseoko emanaldi baterako sarrera bi, Kalamuako Parlamentua jokoa eta “Eibar, Oasi Liberala” liburua), “antxitxiketan” berba eibartar peto-petoarekin. Epaimahaia Nerea Beitiak (Udal euskaltegia), Xabier Zubizarretak (AEK euskaltegia) eta M^a Jose Telleriak (Euskera-Kultura zinegotzia) osatu dute. Lehiaketara aurkeztutako berba guztien zerrenda www.eibarko-euskara.com eta www.eibarkoudaleuskaltegia.blogspot.com webguneetan daude ikusgai.



Beer Band Coliseoan

TALDE EIBARTARRAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU COLISEOAN MARTXOAREN 26AN, 20.30etatik aurrera: “Beer Band’s Nigh Train” izenburuko ikuskizuna eskainiko dute datorren asteko barixakuan, baina nahi duenak sarrerak (euro bi) aldeztu aurretik erosteko aukera dauka, Coliseoko lehiatilan bertan zein Kutxak es-



kaintzen dituen zerbitzuen bitartez.

Beer Band taldea orain dela zortzi urte sortu zen eta musika azkar eta melodikoa jotzen dute, rock klasikoa eta garaikidea, blues ukituarekin. Taldeko kideek bakarkako proiektuak garatzen dihardute, baina Coliseoan kontzertu berezia eskaintzeko batu egin dira.

laburrak

GOI ARGI ELKARTEA

Goi Argi elkarteak sortu zela 58 urte beteko dira bihar, San Jose egunean eta, ohikoa denez, ordurako deituta dago urteroko batzarra. Aurretik, 12.00etan San Andres elizan hildako bazkideen aldeko meza ospatuko da. Bileran 18.30etan hasiko da, elkartearen egoitzan (Torbio Etxebarria kaleko 19an) eta, ondoren, oparien zozketa egingo dute. Ohikoa denez, Goruntz abesbatzak kontzertua eskainiko du.

MINBIZIA

Katxalin bular-minbiziak eta ginekologikoak eragindakoen Gipuzkoako elkarteak bular-minbiziaren sasoi antzematearen inguruko hitzaldia antolatu du, interesa duten guztientzat. Hitzaldia martitzen, hilaren 23an izango da Portalean eta Arrate Plazaola sendagileak emango du.

PALINDROMOAK

Montekasino tabernak hitzaldi-tailerra antolatu du martitzen arratsalderako. 19.00etatik aurrera Markos Gimeno Vesgak “Palindromoak eginez” izenburuko saioa eskainiko du.

Martxoaren 26ra arte



21 DOMEKA 20.30 Laboralean

"Odisea Espacial"
Grupo Maricastaña / Ourense
Antzezleak: María Díaz,
Natalia Forján,
Hector Martínez,
Daniel Alves
Zuzendaria:
Fernando Dacosta

Taldearen lehen sarraldia zientzia-fikzioaren esparruan. Muntaiak hiru atal ditu, irudi proiektzio ugarirekin eta antzokiko toki desberdinetan igortzen den musikaren presentzia nabariarekin. Gure presentziari buruzko hausnarketa eguzki sistemako kosmos zabalaren erdian.

25 EGUENA 17.30/21.00

Laboralean

Asier Errasti Ikus-entzunezkoen X. Jaialdia

Laburmetraiak:
"El último golpe",
"Te quiero", "El momento justo",
"Terapia", "Laura en la cama",
"Sonata para un dueto", "Putas"
eta "Si sabes decir hello"




Antzezlan laburrak dirudite: batzuk komediak, besteak dramak, batzuk profesional peto-petoak, beste batzuk zaletu amorratuak eginak, baina guztiak, aldaketa txiki batzuk eginez, inongo arazorik gabe eraman daitezke oholza gainera, haragi-hezurrezko antzezleekin.

Komedia Versallesen kokatzen da. Bertan Eguzki Erregeak jaietarako musika pieza bat eskatuko dio bere ganbera musikariari. Honek Molièreri deitu eta Medea mito klasikoaren bertsioa egitea erabakiko dute, guztien parte-hartzearekin. Iskanbila eta gaizki-ulertuak sortuko dira artearen eta boterearen artean.

24 EGUAZTENA 19.00 Coliseoan "El truco de Olej"

Cía. Bosquimanos Koryak / Uruguai
Erabiltzaileak: Martin López, Fredy Gulpio,
Juan Gonçalvez, Federico Machín, Pablo Grillo
Zuzendaria: Fabian Principi



Zirko ikuskizun honetan, bertako artistak den-dena egin dezaketan panpinak dira. Ume kale-garbitzaile protagonistak zirko bateko magoa izatea du amets, akrobata, malabarista eta ekilibristaz inguratuta. Antzerki beltzeko ikuskizuna, tamaina eta kolore fluoreszenteetako panpinekin, bizirik iluntasunean.

26 BARIXAKUA 20.30 Laboralean

"El idiota en Versailles"

Arden Producciones / Valentzia
Antzezleak: Juan Carlos Garés, Amparo Vayá,
Chema Cardeña,
Jerónimo
Cornelles
Zuzendaria:
Carne Portaceli



 **publi resa**

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

 **Izadi**

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29


Radio Eibar

CADENA
SER


104,0 FM

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AINARA Arizona Bega, 24an hiru urte beteko dozuz-eta. Aitta, ama, ahizpa, aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, ARRATE, atzo zortzi urte egin zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, UNAX Amorrosta Arriola, etzi bost urte beteko dozuz-eta. Aitta, ama eta Jokinen partez.



Zorionak, LEIRE gure printzesa, gaur hamar urte betetzen dozuzelako. Etxekuen partez.

JAIOTAKOAK

- Ane Arritokieta Martínez. 2010-III-6.
- June Amategi Cabrera. 2010-III-7.
- Uxue Cristóbal Beitia. 2010-III-8.
- Cristina Oihana Ccalliz López. 2010-III-9.
- Malen Inziarte Guinea. 2010-III-10.
- Jule Treviño Sevillano. 2010-III-13.


HILDAKOAK

- Andres Prieto Arana. 92 urte. 2010-III-4.
- Manoli Arrillaga Mujika. 89 urte. 2010-III-10.
- Marcelina Lertxundi Arriola. 65 urte. 2010-III-11.
- Felipe Ruiz Diaz. 77 urte. 2010-III-12.
- Julia Berdote Del Valle. 92 urte. 2010-III-15.
- Maria Garcia Serrano. 92 urte. 2010-III-15.
- Maria Kortaberria Unzueta. 94 urte. 2010-III-15.
- Arantza Egaña Sorarrain. 72 urte. 2010-III-16.
- Pedro M^o Garitaonandia Sarasua. 78 urte. 2010-III-16.

zinea Coliseoan

"Acantilado rojo"

Zuzendaria: John Woo
Aktoreak: Tony Leung, Takeshi Kaneshiro, Fengyi Zhang, Chen Chang...




Han dinastiaren sasoian, Txinako estatuek euren artean borrokatzen zuten. Enperadorearen ahultasuna aprobetxatuz, Cao Cao lehen ministroak gerra deklaratu zion Xu erreinuari, berak botere osoa hartzeko. Borroka labar gorrian izango da.

19an, 20.30etan;
20an, 19.15, 19.45 eta 22.30etan
21ean, 20.00etan; 22an, 20.30etan

"Precious"


Zuzendaria: Lee Daniels
Aktoreak: Gabourey Sidibe, Mariah Carey, Lenny Kravitz, Mo'Nique...



Precious-ek hamasei urterekin ikasi du idazten eta irakurtzen. Horrekin batera mundu berria ezagutu du, ordura arte ez zituen aukerak eskaindiko dizkiona. Gainera, mundu horretan edozein izan daiteke ederra, indartsua, independentea...

"El libro de Eli"

Zuzendaria: Albert Hughes
Aktoreak: Gary Oldman, Denzel Washington, Mila Kunis, Ray Stevenson...



30 urte dira Estatu Batuak guztiz suntsitu zituen Azken Gerra izan zela. Lapurretak eta hilketak nagusi diren Lurrean Eli da geratzen den gizon zintzo bakarra eta gizakiei itxaropena bueltatu nahi die. Carnegie odolzaleak beste asmo batzuk ditu.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

5	4	6	2	9	7	3	8	1
9	8	1	5	6	3	4	7	2
2	3	7	4	1	9	8	6	5
4	2	3	1	5	6	7	9	8
8	1	5	3	7	9	2	4	6
6	7	9	8	2	4	1	5	3
3	8	2	9	4	5	8	1	7
1	5	4	7	8	2	6	3	9
7	9	8	6	3	1	5	2	4

AURREKOAREN EMAITZA

8			7	6			5
	7			1			4
	5		4	9			3
	9	5				2	1
	1	7				4	9
	6		2	7			8
	8			9			5
5			8	3			4

horoskopoa

ARIES

Zure alboan duzun pertsona pozik ikusiko duzu eta, nahiz eta zu zure momentu onenean ez egon, poztu egingo zara. Berak lagunduko ditu.

TAURUS

Lapurtu duzun hori bere jabeari emango diozu. Birritan pentsatu eta berehala sentituko duzu lotsa. Ez zara lapur ona, ez.

GEMINI

Zurekiko segurtasun handia sentituko duzu eta horrek indarra emango dizu egunerokotasunean. Ez duzu inolako arazorik izango aste osoan zehar.

CANCER

Gauza bat ilusioa izatea da eta beste bat mirari bat itzarotea. Ez da miraririk gertatuko, baina ez zara triste ipiniko, inolaz ere.

LEO

Dirua aurreztu beharko zenuke datozen gastuen aurrean. Alde batetik edo bestetik dirua joango zaizu etengabe, beraz, hobe prest egotea.

VIRGO

Ez dakit nork esango zizun ondo geratzen zaizula arropa hori, baina ez dizu fabore handirik egiten. Gustu oneko pertsona zara bada...

LIBRA

Besarkadak, laztanak... ez da ezer faltako zure bizitzan aste honetan. Pasioz beteriko egunak zuretzako, asteburuan batez ere.

SCORPIUS

Hiru eguneko zubia daukagu aurretik eta ederki aprobetxatuko duzu. Aspaldian espero zenuen leku batera joango zara.

SAGITTARIUS

Burumakur hasiko duzu astea, baina amaiera zoragarria izango du. Hori daukazun barre egiteko errezetasunari esker izango da.

CAPRICORNIUS

Zerbait handia egin beharko duzu lagun hori berreskuratzeko, bestela agur betirako. Min handiegia egingo diozu eta zaila izango da barkatzea.

AQUARIUS

Kirola egiten hasiko zara aste honetan, baina igarriko duzu ez zaudela sasoiko. Trankil, martxa hartuko diozu eta ariketa fisikoari.

PISCIS

Arazoen aurrean ebazpen onak egingo dituzu eta konponbide erraza aurkituko ia denei. Baina hurrengoan saiatu arazo horiek ez sortzen.

Eguena 18

IKASTAROA

18.00.- Gurasoak Martxan: 2 eta 7 urte bitarteko haurren garapenaren inguruko ikastaroa (izena eman dutenentzat). Portalean.

MANIFESTAZIOA

19.30.- Jon Anzaren heriotza salatzen manifestazioa. Untzagan.

ANTZERKIA

20.30.- Antzerki Jardunaldietako "Babiloniako loreak" (Antzerkiola Imaginarioa, Bizkaia). Coliseoan.

Barixakua 19

GOI ARGI

12.00.- Goi Argi Elkartean urteko batzarra eta 58. Urteurrena. Meza San Andres elizan.

18.30.- Urteko batzarra, opariaren zozketa eta Goruntz abesbatzaren kontzertua. Goi Argi-n (T. Etxebarria, 19).

Domeka 21

TXIRRINDULARITZA

10.30.- XXXI. Abascal Oroitzarrea. Hasiera Untzagan. Helmuga 11.55 inguruan, Urkizun.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- "Krabat y el molino del diablo". Sarrera: 2'80 euro. Amañako Kultur Aretoan.

ANTZERKIA

20.30.- Antzerki Jardunaldietako "Odisea espacial" (Maricastaña, Ourenseko unibertsitatea). Hezkuntza Esparruan.

Astelehena 22

IKASTAROA

15.00.- Nagusiak etxean zaintzen dituztenentzat ikastaroa (Sendian). Andirao elkartearen.

IKASTAROA

18.00.- Gurasoak Martxan: Gurasoendako heziketa-estrategien inguruko ikastaroa (izena emanda). Portalean.

IKUSKIZUNA

18.30.- "Revolving Rhymes English made easy!", Andrew Marshall-ekin (ingelesez), Eibarko Hizkuntza Eskolak antolatuta. Portalean.

Martitzena 23

IKASTAROA

09.00.- Autonomo eta enpresa txikientzako ikastaroa, Debegeesak antolatuta. Debegeesan (Azitaingo industrialdean).

IKASTEN

10.00.- "Evolución de la literatura a través del relato corto I", José Domingo. EPAn (isasi, 39).

HITZALDIA

14.30.- Gurasoak Martxan: "Educar sin gritar" hitzaldia. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

HITZALDIA

17.00.- Bular-minbizia garaiz antzematearen inguruko hitzaldia, Arrate Plazaola sendagilearen eskutik, Katxalin elkarteak antolatuta.

HITZALDIA

18.30.- Gurasoak Martxan: "Guraso eta seme-alaben arteko heziketa emozionala" hitzaldia. Mogel-Isasin.

IKASTAROA

18.30.- Erretzeari lagatzeko. Portalean.

IKASTAROA

19.00.- Hitzaldi-tailerra: "Palindromoak eginez", Markos Gimeno Vesga.. Montekasino tabernan.

Eguaztena 24

IKASTAROA

09.00.- Autonomo eta enpresa txikientzako, Debegeesak antolatuta. Debegeesan.

IKASTAROA

18.00.- Gurasoak Martxan: Gurasoendako heziketa-estrategien inguruko ikastaroa (izena emanda). Portalean.

BERTSO-SAIOA

19.00.- Saio berezia: Ainhoa Agirreazaldegia, Uxue Alberdi, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Manzidor 'Mantxi' (Hamaika Bertute), Eibarko Hizkuntza Eskolak antolatuta. Portalean.

ANTZERKIA

20.30.- "El truco de Olej" (Bosquimanos Koryak). Coliseoan.

Eguena 25

IKASTEN

09.30.- "Geografía del Bajo Deba", Joseba Arbaizarekin. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKIA

17.30 eta **21.00.-** X. Asier Errasti laborretzai-jaialdiko lanen proiektzioa. Hezkuntza Esparruan.

IKASTAROA

18.00.- Gurasoak Martxan: 2 eta 7 urte bitarteko haurren garapenaren ingurukoak. Portalean.

HITZALDIA


18.30.- Hitzaldia: Birgit Steinkellner (Alemania-Austria). Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres lokaletan.


AFALOSTEKOAK

21.00.- Afaria eta egoera politikoaren inguruko eztabaida (izena aurretik eman tabernan). Montekasino tabernan.



erakusketak

- Martxoaren 21era arte
SONIA MIRANDA. Portalean.
- Martxoaren 28ra arte
"NESKA ARTEAN" EHUko Arte Ederretako ikasleen artelan erakusketa. Portalean.
- Martxoaren 31ra arte
"GERRA ZIBILA MODELISMOAREN BITARTEZ",
PÉREZ GUENAGA anaien eskutik. Portalean.
"URBANISMOA GENERO IKUSPUNTUTIK"
informazio puntua. Juan San Martin liburutegian.
ELISABET EGUREN en akuarelak. El Ambigún.



sarrerak

salgai

ANTZERKIA:
"El truco de Olej".
Martxoak 24, 19.00.
MUSIKA:
Beer Band taldearen
kontzertua.
Martxoak 26, 20.30.

farmaziak

- 18, eguena**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 19, barixakua**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- 20, zapatua**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- 21, domeka**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- 22, astelehena**
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 23, martitzena**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 24, eguaztena**
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 25, eguena**
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 26, barixakua**
EGUNEZ Las Heras (Sostoaarren, 20)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

ikastaroak

- **UEUko udaberriko ikastaroak.**
Izen-ematea: Markeskuan edo www.ueu.org helbidean.
- **Reiki.**
Martxoaren 27an eta 28an, Txalxtxa Zelaiko Reiki zentruan. Informazioa: 665743217.
- **Bookcrossing.**
7-12 urtekoentzat. Noiz: Aste Santuko oporretan. Izen-ematea: **Martxoaren 18ra** arte, Liburutegian (5 euro).

lehiaketak

- **Lip Dub lehiaketa.**
Gai: Eibarko merkataritza eta ostalaritza. Informazioa: **Martxoak 29ra** arte, www.eibar.org helbidean.
- **Armagintzaren Museoaren I. Ipuin Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea eta informazioa: **Martxoaren 30era** arte, Pegoran. www.armia-eibar.net
- **"Ixua-Valenciaga Memoriala" argazki lehiaketa.**
Lanak aurkeztea: **Apirilaren 28ra** arte, Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3), cce@clubciclistaeibarres.org

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.50, 12.50, 13.50, 15.50, 18.50 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.50, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.50, 21.00 eta 22.00. **EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdi. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdi. **EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.50, 14.50, 18.50 eta 20.50. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50-etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.50, 14.50, 18.50 eta 20.50. **EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.50, 10.50, 11.50, 13.50 eta 18.50. **EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.50 eta 20.50. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.50 eta 19.50. **EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdi. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdi eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguner: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguner: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Eguner: 08.13etatik 22.13-etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguner: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.54 eta 20.54. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. 160.000 euro. Tel. 649-091192 edo 636-930962.
- Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai J.A. Mogelen. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Ganbara. Dena kanpora. Berriztua. Prezio onean. Tel. 657-738374.
- Errebal kalean duplexa salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despatxo eta terraza. Berriztua eta argitsua. Deitu arratsalde. Tel. 605-772606.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, komun bi eta despentsa. Guztiz berriztua. Aukera ezinhobea pisu handiago batera aldatzeko. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 630-451870 edo 943-206719.
- Ronilen (Cadiz) apartamentu zogarria alokagai. Garajearekin. Tel. 653-733457.
- Pisua behar da alokatzeko Eibarren. Tel. 943-254118 edo 680-834754.
- Logela alokagai Legarre-Gaineko pisu batean. Tel. 647-792270.
- Pisua behar da alokatzeko Eibarren. Tel. 696-849004.
- Eibarko bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Tel. 646-566278 edo 626-821620.
- Eibarren pisua alokagai. Bariantetik gertu. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta bainugela bi. Gas naturala. Inguru lasaia. Tel. 943-201294 edo 645-728317.

2. Motorra

3.1. Salgai

- Scooter bi (50cc) salgai. Bietako bat piezetarako aproposa. 1.000 euro. Tel. 659-256852.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Amañan lokala salgai edo alokagai. Leku ezinhobean. Guztiz hutsik. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-200919 edo 675-712886.

3.2. Alokagai

- Bidebarrietan 33 m²ko lokala alokagai. Bulegorako. Tel. 943-207339 edo 650-782118.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta informea. Tel. 686-053488.
- Neska euskalduna eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-156040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 619-507664.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 699-345639.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-786976.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Erreferentziak. Tel. 672-203675.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 651-836353.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 636-001196.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 645-366850.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko edo interna moduan. Tel. 618-096628.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 616-809926.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Baita jaiegun eta asteburuetan. Tel. 616-397348.
- Bertako neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo beste edozein lanetarako. Tel. 610-936839.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo saltzaile moduan. Esperientzia. Tel. 688-608922.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan, umeak zaintzeko eta garbiketa lanerako. Tel. 657-142376.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 675-007271.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 681-228427.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 685-761979.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 627-213134.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 699-609190.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Tel. 943-531608.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 699-653874. Cristina.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Tel. 652-446228 edo 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta beste edozein lanerako. Esperientzia. Tel. 646-394857. Celia.
- Neska eskaintzen da interna edo externa moduan eta orduka lan egiteko. Tel. 665-301550. Charlotte.
- Neska eskaintzen da lan egiteko, interna edo externa moduan. Tel. 679-910991. Sagrario.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko: paseatu etabar. Tel. 648-143804.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako. Baita gauz eta asteburuetan ere. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Baita gauz eta asteburuetan ere. Tel. 656-493864.
- Mutila eskaintzen da nagusiei lagundu edo garbiketa lanetarako. Tel. 638-513253.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 637-180723.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan nagusiak zaintzeko. Tel. 618-096628.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 943-254118 edo 628-526642.

4.2. Langile bila

- Estetizista behar da Eibarko ilea-painidegi batean. Esperientzia. Tel. 635-750643.
- Kamarera/o eta sukaldaria behar dira Aste Santurako Arrate. Autoa eta esperientzia. Tel. 677-638184.
- Estetizista behar dute Elgoibarko estetika zentro batean. Tel. 943-531636.

6. Denetarik


6.1. Salgai

- Brother Fax-2820 faxa salgai. Berrria. Ia erabili gabe. 180 euro. Tel. 637-835588.
- Logela klasikoa salgai. Armairua, ohea eta mesilla bi. Metro biko sofa oparitzen da. Tel. 670-497061.

6.2. Eman


- Sagutxoendako kaiola oparitzen dut. Tel. 658-715978.

Hortzordeekin arazoak?



Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



Goiko aldeko inplanteak

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.

Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR www.esteticadelasonrisa.com



Andoni Guisasola Ron Dokorea
R.P.S. 156/5

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu

*...eta kitto! aldizkarian
duzu aukera (943 20 67 76)*

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75